


Wukrotik zerura



Angel Olan misiolaria Hernanin egon berri da, familia eta lagunak bisitatzen. imanol otegi / argazki press

Idoia Etzeberria

Angel Olan hernaniarrak 25 urte daramatza misiolari lanetan, Afrikan. Hogeita bat urte egin zituen Tanzanian, eta, 54 urterekin, Etiopiarra joan zen. «Ez nekien ondo moldatuko nintzen, hizkuntza ez da Tanzaniakoa bezalakoa, kultura semita da, eta beste mundu ikuskera bat dute. Baina dagoeneko hamabi urte daramatzat han!». Eta hantxe emango ditu bere bizitzako azken urteak, Wukro herrian, behartsuekin. Bi urtetik behin etortzen da Euskal Herrira, eta berarekin egoteko aukera izan dugu, Hernanin, arrebaren etxean. Etiopiarra bueltatzekoa zen egun berean. Eskuzabalik hartuko zuten wukrotarrak, zalantzarik gabe: Abba Melaku deitzen diote, *zerutik etorritako aingerua*.

Nekazaritza eskola bat abian jartzeko joan zen Angel Tanzaniatik Etiopiako iparraldera, Tigray eskualdera. «Lurra erdi elkorra da, eta, iritsi ginenean zuhaitz bakarra zegoen, sutan hazten den zuhaitz bat, hango klima gogorre-ara egokitua. Jendeak esaten zigan han nekazaritza eskola bat egiteko ergela izan behar zela, edo bestela izugarriko fedea izan». Eta federik ez zitzaien falta Angeli eta beste misiolariari. «Hamar urteren buruan, 10.000tik gora zuhaitz ditugu zentro horretan, eta 4.000 beste zentro batean. Ur pixka batekin eta kudeaketa pixka batekin asko egin daiteke».

Saint Mary eskola handituz joan da, eta, egun, 350 haur inguru joaten dira hara. Nekazaritza eta merkataritza ikasten dute, eta baita beste hainbat esparru jorratu ere: «Elektrizitatea, mekanika, aroztintza... Larrua ere lantzen dugu, zapatak, baloiak eta poltsak egiten ditugu». Josten ere irakasten diete, brodatzen, arropak egiten. «Musika, pintura, eskultura... Zirkua egiten duen talde bat ere badago, eta beste bat karate pixka bat egiten duena», azaldu digu Angelek. «Gaitasun fisi-

Angel Olan misiolariak 12 urte daramatza Etiopian, misiolari lanetan; bi urtean behin etortzen da Euskal Herrira, senideak eta lagunak ikustera

koa eta profesionala garatzean, adimena ere garatzen dute». Ingelesa erabiltzen dute eskolan; kalean, berriz, tigrinya, arabieraren eta hebraieraren tarteko hizkuntza. «Kostatzen ari zait ikastea. Tanzanian swahilia ikasi nuen eskolan, eta hango herrietan jende guztiak daki swahilia. Urtebetean banekien, baina hemen, erdipurdi! Beti ari naiz ikasten. Hizkuntza zaila da, baina polita».

Bi jangela dituzte, 5 urte arteko haurrentzat. «220 ume egunean hirutan etortzen dira. Beste 150 ume zentrotik urrutiz bizi dira, eta haien amak hilean behin etortzen dira, seme-alabak elikatzeko diru pixka baten bila». Bikiak izan dituzten amei ere jaten ematen diete zentroan, nahikoa esne izan dezaten. Eta makina bat umezurtz daude Wukron. «800 umezurtz ditugu gure kargu, pobreziaren seme-alabak. Gurasoak hiesarekin hil dira, eta batez ere tuberkulosiarekin».

Seme-alabekin bakarrik bizi diren emakume alargun eta ezkongabeei ere laguntzen diete. «700 bat emakumeri lagundu diegu kreditu txikiarekin eta ikastaroekin, euren bizitza antolatzen: behiekin, ahuntzekin, oiloekin, baratzeekin... Kreditua ordaintzen ari dira, eta aurrera egiten». Prostituzioa da pobretasunaren eta gerren beste ondorioetako bat: «Eritreatik emakume asko etorri dira, soldaduekin seme-alabak izan zituzten, eta soldaduak hil egin ziren edo joan... 300-400 emakumerekin ari gara lanean. Ez dute heziketarik, ez lanik... Euren gorputza besterik ez dute. Eta soldadu eta tratulari asko pasatzen denez handik, garraiolariak... gorputza saltzen dute, seme-alabei jaten emateko». Diru apur bat dutenean beste zerbaitetan hasten direla dio Angelek, eta hori pozgarria dela.

«Oso aberasgarria da. Polita da ikustea emakume horiek arima garbi dutela, zulo horretan egon arren atseginak direla, maitagarriak, xaloak... Horrelako egoeretan espero ez dugun gizatasuna dute».

Wukroko ospitalean eta osasun zentroan ere laguntzen dute Saint Mary misioiko bi apaizek eta lau misiolariak. «Donostiako Medicus Mundiren laguntzaz, tuberkulosia dutenentzat pabiloi bat eraiki dugu, 46 oherekin. Unitate mugikor bat lortu dugu osasun zentroarentzat... Eta orain dutxak jarri dituzte herrigunean, eta komunak egiten ari gara, 32 bat familiak erabiltzeko». Gipuzkoako ingeniarien GKEk ur hornidura hobetzeko egitasmoa aurkeztu berri du, eta aurrera ateratzea espero du Angelek. «Putzuetako urak kresal asko du. Ibaiko ura ona da; orain lehortuta dago, baina lur azpian ura egongo da».

Gizatasuna
«Han ez dute baliabide materialik; pertsona biluzik ezagutzen duzu, eta oso polita da»

Misiolari lana
«Duzuna besteei emateko esperientziak, fede horrek, filosofia horrek gidatu nau»

Donostiako gazte talde baten egitasmoaren berri ere eman digu: «Jangela Solidarioa ari dira antolatzen. Wukroko 500 ume elikatu nahi dituzte, bost urtean. Ea lortzen duten!» (*jangelasolidaria@begira.com*).

Aita Zurién taldekoa da Angel, eta beste hiru misiolariak Uganda, Zambia eta Kongokoak dira. Aurrera begira hainbat egitasmo dituzte. Merkatuetan eta dendetan zabor organikoa batzen hasi dira, ongari gisa erabiltzeko, eta balio badu, baita oiloei jaten emateko ere: «Umezurtz batzuek lur zati txikiak dituzte, lau bat oilo jarriko dizkiegu eta materiaren bila etor daitezela». Nekazariei ekoizpena handitzen laguntzea da beste helburu bat. «Orain arte eskolara etorri dira, eta eskola herrietara eraman nahi dugu, bien esperientzia batzeko. Lurra eta ura ondo baliatuta, uzta bikoiztu edo hirukoiztu egin daiteke, nik uste. Gaur egun, uzta ona bada, familia bat lau hilabetez elikatzeko balio du. Herritarren %1ek soilik elikatu dezake familia urte osoan».

Beti daude lanez gainezka, baina pozik dihardu Angelek. Begien distiran igartzen zaio hori, hitz egiteko moduan. «Ikusten dugu jendeak ilusio handia duela, beharra dagoela eta herritarren eta Administrazioaren konpromisoa serioa dela. Jendea gure aurretik doa sarritan: 'Lagundu hori egiten'... Beti bultzaka ari bazara, nekatu egin zaitezke, baina han beraiek dira eskutik heltzen dizutenak. 'Goazen, egin dezakegu'».

«Gizadiaren biluztasuna» ezagutu du Afrikan Angelek. «Oso lan polita da. Gizatasun biluzia ukitzen duzu. Hemen pertsona batekin hitz egitean —salbuespenak daude, noski— ez dakizu pertsonarekin hitz egiten zauden ala erosi duen auto berriarekin, edo 30 urteko hipotekarekin edo izango dituen operrekin. Ez dakizu pertsona ari zaren ukitzen, edo inguruan dituen baliabide material guztiak. Han ez dute baliabide materialik, eta pertsona biluzik ezagutzen duzu». Afrikak betidanik erakarri izan du Angel, eta behar gorrian daudenek ere bai. «Zuk duzuna besteei emateko esperientziak, fede horrek, filosofia horrek gidatu nau. Nik dudak guztia besteen dako da».

Etiopiarren % 70 gazteak dira, eta horiek ondo hezteko ezinbestekoa dela dio Angelek. «Osasuntsu, indartsu eta argiak izan behar dute, egunen batean herrialdea garatzeko gai izan daitezten, euren kabuz. Gazteen esku dago nazioaren etorkizuna». Baina hori lortzeko, hazi txikitxo bat baino ez da jarri dutena. Izan ere, Etiopia oso handia da, eta gero eta behartsuagoa. «Hirugarren Munduko etekinak Lehen Munduarentzat dira beti», eta ezinezkoa da gupril hori gelditzea.

Etiopiarra bueltatzeko gogoz dagoen galdetu diogu Angeli, ordu eta erdi barru Madrilera bidean izango baita, han hegazkina hartzeko. «Bai, noski. Pena ematen dit familia eta lagunak uztea; beti kostatzen da, baina joan nahi dut». Aurten salbuespena egin du, eta birritan etorri da hona. Duela bi hilabete, eta oraintxe. Arrazoia: Vicente Romero idazleak *Donde anidan los ángeles* liburua idatzi du, injustiziaren kontra borrokan dabiltzan misiolarien inguruan, eta aurkezpenean parte hartzeko eskatu zion Angeli.

Maite arrebari begiak busti zaizkio Angel agurtzean. Beti hain urrutiz. Ez du bi urtean ikusiko. Berriz inoiz ez ikusteko aukera ere hor dago, anaiak 66 urte dituelako; aspaldi utzi ziolako galtza motzetan ibiltzen zen mutil koxkorra izateari. Eta Etiopiako bizitza baldintzak ez direlako hemengo parekoak. «'Wukrotik zerura', esaten du berak beti. Infernura behintzat ez da joango, ziur».